

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 224. zkia. 2014ko ekaina



**Ermuarrak
eta
mallabitarrak,**



**kirolean
primeran**



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Leidako Unibertsitatea eta Madril.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.** Inplantologia Masterreko Irakaslea. **Leidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.** Unibertsitate Institutuzietako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Inplantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomaturia Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Autran Institutoa, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSAUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Igone Amesti, Ibaia
Azagirre, Leire Elustondo,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALA:

Igone Amesti, Ibaia
Azagirre, Pablo Garcíandia,
Estibalitz González eta
Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Eneritz Aranburu,
Gaizka Areitioaurtena,
Amaia Arriaga, Antonio
Hernández 'Cuco',
Fede Iturriagagoitia,
David López, Patxi López,
Juan Carlos Martín,
Pello Mugarza, Valentín
Mugarza eta Marines
Txurruka.

ARGAZKIAK:

Eneritz Aranburu, Leire
Elustondo, Eskolabarri,
Pablo Garcíandia, Markos
Gimeno, Estibalitz González,
Jon Ander Lerin, Juan Carlos
Martín, Valentín Mugarza,
Sffera, Aitor Unanue
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-215/94.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

BERDELOIA *Verderón común* *Carduelis chloris*



Arra koloretsuagoa da: luma berdexketan, papar horixka deigarria; berdeloiaren emea, oster, arreago da eta bizitasun gutxiago du. Kumeak hazteko sasoiari zuzaitz-tantaie-tatik abesten du, nahiz eta habia zuhaitzetan egitea duen gustuko... Mota honetako deskribapenak sarri-sarri irakurriko zenituen txori-txoko honetan, ezta? Ba agur-agur esan behar diegu leihotxo honetara bisitan etorri zaizkigun 56 hegaztiei eta eskerrak eman gure begien aurrean paratu eta eurekin hegan egiteko aukera eman digutelako. Lumen koloreagatik eza-gutu ditugu, bizitokiagatik, elikagaiengatik, euren

arteko desberdintasunengatik... Hona arte ba 5 urte pasatxoz

bertoko txoriei eskainitako natur-ikasgai hau. Gure baso, lorategi, kale eta baserri inguruetako biztanletxo hauek, hobeto ezagutuz, estimatu eta aintzakotzat hartuko dituzun ilusioarekin, agur txorizaleori!

Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4	KIROLZALE17
Jens Christian Forner Vallés (Alemania)	Errotabarriko kadeteak
ELKARRIZKETA5-7	IRITZIA18
Markos Gimeno, palindromista	"Adimen emozionala eta umeak"
MALLABIAN ZER?8-9	SALEROSKETAK19
Mallabia erdi-aroran	Saldu, erosi edo agurtu
ERMUAN ZER?10-12	ANTZINAKOAK.....20
Sffera, Sutegi eta A. Mallabiabarrena	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN.....14-15	KALEKO INKESTA21
Thomas Trifol / Gastronomian sarrituak	Etxe-trukea egingo zenuke?
BOTEPRONTOAN16	AGENDA22
Danel Ferreño	Santixau aurrekoak

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Jens Christian Forner Vallés

Alemania iparraldeko Frisia eskualdekoa sentitzen dela dio, Colonia, Marsella, Montpellier, Bilbo eta orain Mallabia bizileku izan dituen 37 urteko mutil altu, begi-urdin alemaniar honek. Castellongo Gessamirekin ezkondu, bere abizenak hartu, eta Emma, 3 urteko alabarekin, bigarren urtea egingo dute Mallabian.

- Emaztearen abizena duzu...

Nire aita adoptatua da. Bere benetako aita gerran aritu eta hiltzat jo zuten pilotua zen, nire amona haurdun zegoela. Horrela, beste gizon batekin ezkondu zen, baina kartzelan 5 bat urte egon ondoren itzuli egin zen hiltzat izan zuten gizona. Abizen horrekin zerikusirik ez dudala sentitzen dut eta, bestalde, oso ohikoa da Alemanian ezkontidearen abizena hartzea. Beraz, nik eta Emmak Gessamirena dugu orain.

- Zenbat denbora daramazu hemen?

Lehenengoz 2006an etorri nintzen igerileku hutsetan, urik gabekoetan, skatean aritzera, torneo batera. Harrez gero, urtero etorri izan gara eta 2008an etorri nintzenean, nire emaztea, Gessami ezagutu nuen Getxoko Portu Zaharreko jaietan. Alemanian ikasketak amaitu eta tesia egin nuen. Gero, Gessamirekin bizitzera etorri nahi nuen eta familiak esaten zidan ea erotuta nengoen, ez nuela hau ezagutzen, ez nekiela gaztelera. Bilboko Alde Zaharrean bizi izan ginen Mallabira etorri orduko.

- Zer aurkitu duzu Mallabian?



Nire familiarentzako bizi-kalitatea. Herri osoa da Emmarentzat parke bat. Ez dago arriskurik, denek ezagutzen dute eta lasai ibil daiteke herrian. Bestalde, herri txikiak duten txarrena ere bada denok elkar ezagutzea. Etxeetxebarri base-rrian bizi izan ginen ia urtebetez, baina hotz egiten zuen eta urrun zegoen, kotoxea hartu behar zen edozertarako, eta aspertu egin ziren neskek. Nik asko botatzen dut faltan hango lasaitasuna.

- Nola hartu zaitu hemengo jendeak?

Ezin dezaket esan, lanagatik-eta, ez naizelako ibiltzen herrian. Ez dut esperientzia txarrik izan baina bai esperientzia zoro bat: Real Madrid eta Bayern München-en arteko futbol partida bat ikusten nengoela, hemengo denak zeuden Bayern-en alde eta ni bakarrik Real Madridenten alde. Gorroto dut Bayern München.

- Zer botatzen duzu faltan?

Lagunak. Bakoitzak bere bizimodua du, umeak ere bai, hori horrela da. Faltan botatzen dudana gaztetasuna da,

eta batez ere skatea. Gure umea jaiotzen hernia bat izan nuen bizkarrean. Bajan egon nintzen urtebetez eta orain, ibiltzen naizen arren, ezin dut lehen bezala praktikatuta. Bizikletaz aritzen naiz orain baina ez nau asko betetzen.

- Hemen geratzeko asmoa duzu?

Ez dakit, lanaren arabera. Orain CMZn nabil, Zaldibarren, Esportazio Ardura-dun moduan, baina Marmotaren eguna filmean bezala sentitzen naiz, errutinan sartuta. Niri gustatuko litzaidake aldatzea, 5 urtetik behin edo, baina emaztea gustura dago hemen eta ez dakigu.

- Euskara ikasteko asmorik?

Alabarekin zerbait ikasi dut: etorri, kaixo, agur, apatxi, txanda, arratsaldeon, pintxo, guai eta horrelakoak, umeentzat garrantzitsuak direnak. Abestiak ere bai, zorianak zuri, eta abar. Gaztelera ez zait gustatzen, hiztegia falta zait. Frantsesa hitz egiten dut. Bost hizkuntza mantendu beharko nituzke eta ez da erraza!!

Eneritz Aranburu

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



Markos Gimeno, palindromista:

“Euskarazko palindromoen munduan, Robinson Crusoe sentitzen naiz”

131 AZA liburua kaleratu berri du Markos Gimeno ermuarrak. Palindromoez josita daude liburuaren orriak, hau da, esaldi kapikuez, simetrikoez. Eta horietaz gozatu ahal izateko, Markosek emandako arrastoak erabili beharko ditu irakurleak. Jolasteko liburua da, edizio zaindua du eta *crowdfunding* sistemaren bitartez finantzatuta dago. Bederatzi hilabete eman ditu Markosek horren prestaketan, baina duela urte dezente murgildu zen hitz-jokoen mundu eroan, 1998an. Gai horren inguruko bloga ere badu –zerorajaso.com–, eta gaur egun hainbat erronkari aurre egiteko gogotsu dago, palindromoen mundua zabaldu eta merkaturatzeko.

- Zer dela eta bururatu zitzaizun liburua argitaratzea?

Esaten dute bizitzan hiru gauza egin behar direla: seme-alaba izan, zuhaitza landatu eta liburua idatzi.

- Eta, hiru horietatik, liburua da egin duzun lehena?

Bai, horrela suertatu da. Ez neukan preferentziarik, kar-kar.

- Zer jaso duzu 131 AZA liburuan?

Urteetan nire blogean kaleratu ditudan palindromo-arietak. Alde horretatik, lana egin nuen, baina maketazioarekin eta diseinu kontuekin hilabeteak eman ditut: iazko abuztuan hasi nintzen eta apirila aldera bukatu. Beraz..., 9 hilabete. Begira, liburua eta umea batera egin ditut. Eta zuhaitza beharrean, aza.

- Diseinua oso landuta dago...

Bai, zerbait berezia egin nahi nuen. Orri bakoitzean palindromo bat ipini dut, olerkia balitz moduan. Gainera, liburuarekin batera beste liburuxka dator, palindromoen itzulpenekin: gaztelaniara, katalanera, ingelesera eta frantsesera.

- Zein adin tarterentzako dira egokiak zure arietak?

Helduentzat, 14 urtetik gorakoentzat. Batzuk oso zailak dira, eta pazientzia eta denbora eskatzen dute. Gaur egun, zoritxarrez, ez

dugu denborarik; edo ez dugu hartzen. Hala ere, ariketa bat asmatuta, harrapatu egiten zaitu.

- Zer nolako arietak dira?

Nik emandako arrastoei esker asmatu behar dira palindromoak. Izenburua ematen dut eta, zenbakien bitartez, hitzen letra kopurua zehaztu. Gainera, enuntziatua ere badago, hamahiruko bertso-lerrotan idatzita dagoena.

- Crowdfunding sistemaz baliatu zara inprenta gastuak ordaintzeko, ezta?

Bai. Inprentarako dirua behar nuen eta kontuak egin nituen: 150 lagunek 20 euro ipintzea nahikoa zen. Inguru-dudan sarean begiratu nuen (familia, lagunak, blogaren jarraitzaileak...), eta egingarria iruditu zitzaidan. 40 egun nituen dirua lortzeko, eta 20. egunean lortua nuen. 500 ale atera ditut eta 200 bat saldu ditut jada.

- Non eros daiteke?

Niri eskatuta: markus@zororajaso.com. Gainera, Alhondigako Shopa dendan eta Bilbo Zaharra auzoko Anti liburu-dendan eros daiteke. Ermuko liburu-dendetara ere eramateko asmoa dut.

- Zer dira zuretzat palindromoak?

Lanbidea, ia-ia. Ez da nire ogibidea, ez naizelako hortik bizi, baina konstantzia eskatzen dit, astelehenero ariketa berria ipintzen bai-



tut nire blogean. Oso desordenatua naiz nire bizitzan, eta horrek orden bat markatzen dit. Niretzako jolasa da, baina serio hartuta.

- Zergatik ez diezu irakurleei palindromoa osorik ematen, asmakizunen bitartez egin beharrean?

Kontua da palindromoak dosi txikietan eman behar direla. Palindromo bakarra irakurtzea deigarria izan daiteke, polita; zerrenda luzeei, ordea, jendeak ez die kasu handirik egiten. Aurkezteko modu erakargarria bilatu behar da. Nik erronka proposatzen diet astero irakurleei, eta horri esker feedbacka edo harremana sortzen da.

- Zenbat jarraitzailek egin dituzte ariketa horiek?

Azkenaldian ez diet estatistikei kasu handirik egiten, baina badauket hasieratik jarraitzen nauen taldetxoa, 2007tik, bloga martxan ipini nuenetik.

- Orduan hasi zinen palindromoak idazten?

Ez, 1998an hasi nintzen kontu honekin, kasualitatez. Beti gustatu izan zaizkit matematikak eta hitz-jokoak, argitasun-jokoak. Halako batean, irratian entzun nituen palindromo batzuk eta probatzen hasi nintzen. Euskaraz ezin zirela egin pentsatzen nuen, baina ez. Probatzen hasi nintzen eta pikatu egin nintzen. Gauza pribatua izan zen hasieran, frikia. Gero, Katalunian dagoen Nazioarteko Klub Palindromista ezagutu, eta publikatuko zizkidetela esan zidaten. Horren ostean, Angel Lertxundi idazleak palindromoen inguruko testua idatzi zuen, eta nik asmatutako palindromoak bidali nizkion. Argitaratuko zituela esan zidan hark ere, eta sekulako poza hartu nuen. Jendeak nire lana baloratzen zuela ikusi nuen, eta balioa ematen hasi nintzen nik ere.

**“Nire lehen palindromoa:
esanikerruzegibat
tabigezurrekinase**





ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

- Euskaraz ezin zirela egin pentsatu, baina horiekin aurrera egin zenuen...

Bai, ez nuen adibiderik ezagutzen, baina irteten hasi zitzaizkidan. Gainera, ikusi nuen oraindik esplotatu gabeko bidea zela.

- Oraindik ere, euskaraz egiten dituzu guztiak?

Ez, orain dela urte pare bat gaztelaniaz ere egiten hasi nintzen. Probatu nahi nuen, baina asko eta asko eginda daude. Gaztelaniaz tradizioa dago, oso jende ona... Euskaraz ez dago zeinek alderatu. Euskaraz, Robinson moduan sentitzen naiz. Euskal Herrian beste 3 palindromista daude, baina ez dira oso aktiboak eta gainera gehienek ez dituzte euskaraz egiten.

- Hasieran egin zenituen palindromoak ikusita, bilakaera izan duzula esango zenuke?

Hasierakoak asko gustatzen zaizkit. Beste gauza batzuk landu ditut orduetik, erraztasuna, esaterako.

- Zenbat denbora behar duzu palindromoa egiteko?

Normalean hitz batetik abiatzen naiz eta horri bueltak eman eta eman. Egunetan egon naiteke aurrera eta atzera. Pazientzia infinitua behar da.

- Neurtu daiteke palindromo bat ona edo eskasaden?

Bai, Klub Palindromistak dekalogo bat egin zuen: gramatikalki zuzena izan behar du; hiztegi aldetik, aberatsa bada eta hitz berriak sar-

“Jendeak nire lana baloratzen zuela ikusi nuenean, ni ere balioa ematen hasi nintzen”

tzen baditu, hobeto; mezu argia eman behar du, ahalik eta naturalena...

- Zenbat eta luzeagoa, hobe?

Zenbat eta luzeagoa, orduan eta korapilatsuagoa izaten da. Azkenean, zuk erdiraino idazten duzu, simetriak agintzen dizu beste erdia. Hori da jokoa: zein punturaino zaren libre nahi duzuna idazteko.

- Zein harreman duzu Klubeko kideekin?

Aldizkari bat dago, *fanzine* antzekoa, hiru hilean behin kaleratzen dena, eta bakoitzak gure ekarpenak egiten ditugu. Gainera, urtean behin topaketa egiten dugu. 2011koa, esaterako, Ermuan izan zen. Elkar ezagutzen dugu, aurkezpenak egiten dira, mahai-inguruak...

- Euskarazko palindromoak eramaten dituzu topaketetara?

Bai, eta itzulpenak eramaten ditut. Esaten didate: ona zarela ematen du, baina zuk esaten duzulako, guk ez dugu ezer ulertzen!

- Palindromoen esparruan, dena asmatuta dago?

Ez, orain soinua lantzen ari naiz, esaterako. Sonoritate aldetik, zein aukera ematen duten ikusi nahi dut. Ikertzea gustatzen zait, jolastu, palindromoei gehiago atera. Eta audioarekin gauza bitxia gertatzen da: palindromo ez diren esaldi batzuk, palindromo bihurtzen dira; ‘ts’ eta ‘tz’-rekin soinua bereziak sortzen dira...

- Zertan emango dituzu hurrengo hilabeteak?

Nire lana merkaturatzen. Sekulako beharra egin dut, eta, ez dut aberastu nahi, baina etekina atera nahiko nioke. Seguru nago honetarako lekua badagoela merkatuan. Aldizkari edo egunkari batek eskatuko balit astero palindromo bat egiteko, prest egongo nintzateke. Tailerrak eman, ikastaroak... Saltzea da erronka, eta batzuk oso trebeak dira gauzak saltzen. Ni, ordea, sortzen naiz aditua; ez saltzen.

Dorleta Vidal



AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua



ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Artisau-pizak · Etxeko razio eta postreak



Etxera eramango dizugu!

943 17 67 74 

Ostiral eta larunbatak: 20:00-00:00 / Igandeak: 20:00-23:00

Mallabia Erdi Aroan, arkeologiaren ikuspuntutik

Belen Bengoetxea, ikerlari, idazle eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak hitzaldia eskaini zuen Mallabian. Bertaratu ziren herritarrek mende asko atzera egiteko aukera izan zuten durangarraren eskutik eta herrian diren aztarnen berri izan, haiek baloratzeko eta babesteko bidean harritxo berri bat jarritz.

Mallabia Erdi Aroan kokatzeko ez dago behar besteko informazio eta ikerketarik, baina gehiago jakin dezakegu berau Durangaldeko kontestu barruan kontsideratuz gero. Epe luzea da Erdi Aro legez hartzen dena, VI. mendetik XV.era doana. Mendeak atzera egiteko, gure lurraldean aztarnategi arkeologiko baliotsuenetakoak nekropoliak, hilobiak, elizak eta basilizak direla aipatu zuen. Enterramenduek hitz egiten digute biztanleriaren kokapenaz, sakabanaketaz edo multzoketaz, sinesmenez, egunerokotasuneko elementuez, hauen materialez... Interesgarria lurperatzeak historian zehar laga digun datu andana eta interpretaziora-

ko zabaldu dizkigun bideak: VI.-IX. mende tartean hilobi jantziak ziren, hau da, hildakoaren gauza pertsonalez hornitutakoak, gero harrizko hesiz nolabait mugatuko ziren, eliza baten inguruan kokatuz aurrerago edota gorpua estaltzeko harlosa handiak erabiliz geroago. Esate baterako, Oiz mendiko lurperatzeetan harri bakarreko harlosak erabiltzen baziren ere, bertako berezitasuna harri gainean egiten zuten zuloa da. Berau hildakoaren buru gainean kokatzen zuten eta barruan ikatz, hezur zati eta mota horretako arrastoak aurkitu dira, hildakoari erritualak egiteko praktika aurre-kristaua bezala interpretatu direnak.

Nekropoliak, eliza eta basilizen inguruan kokatzen



Goittako S. Juan basilizako harlosa, Erdi Aroan hilobiak estaltzeko erabilia.

ziren eta sortu zireneko sa-soiko zantzuak gordetzen dituzte. Zengoitteko San Juanen kasuan, zulodun estalkiak topatu ziren bere inguruan eta ateburuari josita *In dei nomine ego Mamuto* (Jainkoaren izenean ni Mamuto), Mamuto gizakiaren hilobian erabilitako estalki inskripzioduna. Goittako S. Juanen estalkiak gordetzen dira, trikuharri eratan jarritako hiru harri zulodun. Jasokunde Parrokian ez da enterramendu aztarnarik kontserbatzen, baina Iturrizak XVIII. mendean *In dei nomine...* inskripzio bat katalogatu zuen, hor nekropolis bat

egon zenaren aztarna nonbait. Gerora, XII. mendean, herrixketan batzen zirenez herritarrak, auzoetan, lurperatzeetarako espazioa ordenatuagoa eta hilobiak berberabiltzen hasiko direla aipatu zuen ere Belen Bengoetxeak.

Baina bere hitzaldia bakarrik ez zen hilobietan zentratu: hizpide izan zituena baserrietako arrasto batzuk, paisaian irakur daitezkeen *sel* edo kortak, hau da, lur-ordenamendu zirku-larrak... Hurrengo batean sakontzeko gonbitea egin zien entzuleei.

Estibalitz González

MALLABIKO
Herriko
taberna

Eguneko platera (3€)
menua, bokatak,
plater konbinatuak,
pintxoak, kazolak,
arraina eta txuleta
parrillan (enkarguz)...

EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIA

ETXERA

943 174 952
(asteartetan itzita)

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

DANAONA
IZOZTUAK ETA
AURREKOZINATUAK

GOIENKALE Z/G
ERMUA
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7
ARRASATE
Tel. 943 770 598

Ferreteria / Burdindegia

ANBOTO

- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikulua

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreteriaanboto.es

OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat
baino gehiago!

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

UDALEKUEK

Aurtengo umientzako udalekuek Mallebiko Satxibu aisialdi taldiek antolatu dauz. Guztire, 4-13 urte bittarteko 48 umek emon dabe izena. Ekaiñan 30etik uztailan 18re Mallebiko eskolan elkartuko die goizeko 9:30etatik eberdiko 13:00etara bittartien. Bertan ibilliko dien gaztiekin hainbat jolas eta eskulan egittiaz gain, herritik ibilaldiek, Otxandixoko abentura parkera urteerik eta Berrizko igerilekure juengo die. Euren kargu Mallebiko 7 begirale egingo die, 5 neska eta 2 mutil.

ANTZERKIXE

Bastida tabernan, Orraitio Euskara Elkartiek antolatute, uztailan 4en arratsaldeko 19:30etan *Buah txabal!* antzerkixe ikusteko aukerie egongo da. Antzelazna Unai Iturriaga bertsoaririk idatzittekue da, eta bertan Jon Zubillagak jardungo dau antzezle lanetan.

KONTZERTUE

Uztailan 11an gabeko 20:00etan Herriko Tabernako zelaixen Fear Crowd taldiek kontzertue emongo dau. Talde hau ermuar eta bilbotarrez osatute dago. Kontzertue gerturazten dienek *heavy* musika 80. hamarkadako ikutuko musikaz gozatzeko aukerie eukiko dabe.

“IRAKURRI GOZATU ETA OPARITU”

Orraitio Euskara Elkartiek, irakurzaletasune sustatzeko asmoz, aurtengo bigarren martxan jarri dauen “Irakurri, gozatu eta oparitu” egitasmue ekainan 30ien amaizuko da. Parte hartzeko liburutegire gerturatu, euskarazko liburu bat maileguen hartu eta, beratu irakurri ostien bueltatzera-kuen, baloraziño orrixe bete ostien, irakurleiek euskarazko liburu bat erosteko deskontu-txeke bat jasoko dau.

GOITAKO SAN JUANAK

Ekaiñan 23en txopo jasotze eta San Juan suekin batera emon jakuen hasierie Goitako auzoko San Juan jaixei. Ekaiñan 24en mezie eta briska txapelketiaz emon jakon jarraipena jaixei. Oingo egunetako egitaraua, honako hau da:

Ekaiñak 27, barixekue:

- 22:00etan, auzo afarixe. Xabier Amurizak *Lazkao Txiki: bat-bateko sorgina* bertso emanaldixe eskeiñiko dau.

Ekaiñak 28, zapatue:

- 18:00etan, txinga erute lehiaketie (sari ezberdiñek).
- Iluntzixen, patata tortila txapelketie (sari ezberdiñek).
- 22:00etan, gaztien arteko lehiaketie: trontza, junkura, txinga eta txokor batzen.
- 125kg ko Anbreko harrixe bizkorren zeñiek altzau. 150€ko sarixe.
- Irrintzi eta adar jotzie (sari ezberdiñek).

Ekaiñak 29, domekie:

- 11:00etan, mezie.
- Gazte alai dantza taldie.
- Herri kirolak loritz, Jon, Karmele eta Haritzen eskutik.
- Motoserra erakustaldixe (Asier Etxaburu).
- 17:00etan, umientzako jolasak.
- Jarraixen, ardi mozlian desafixue. Miren Urkiola makiñiaz eta Aitor Urien eskuz.
- 18:00etan, boloak (sari ezberdiñek)
- Azkenik, txokolatada eta zozketie.

HIRU HAUNDIAK LASTERKETA

Ekaiñan 14en izen zan bi urtetik behin ospatzen dan Hiru Haundiak mendi-lasterketie. Bertan 1.701 kirolarik hartu eben parte, tartien Gorka Arrizabalaga, Eneko Garitagoitia eta Ruben Rivero mallebitarrek. Lasterketie Arabako Gopegi herrixen hasi zan; 100 kilometroko eta guztire 10.210mko desnibelesko ibilbidie egin ostien, Araia herrixen euen helmugie. Tartien, Euskal Herriko hiru mendi esanguratsuenak igaro zittuen: Gorbeia, Anboto eta Aizkorri. Mallebitarren denbora eta sailkapena: Gorka Arrizabalaga: 13:41 ordu (72. postue); Eneko Garitagoitia: 14:57 ordu (137. postue) eta Ruben Rivero: 15:32 ordu (185. postue).

KONPOST-GUNIEK

Mallabarrenako konpost-gunie txiki geratu da; momentu honetan deuken tamaiñerako, familia gehixegik botatzen dau bertara organikue. Hori dala eta, beronen tamaiñe bikoizteko asmue dauke Udalak. Orain, 100 familia dagoz apuntauete eta ia beste hainbestentzako lekue beharko dala diñue Udaletik. Bestalde, Elizaldeko biztanliei be, euren etxe inguruen konpost-gunie ipintzeko asmue daukiela jakinarazi dabe. Antolaketa hau Mankomunazguan bittartez egitten danez gero, ahalbait ariñen beste kanpaiña bat martxan jartzeko eskatuko jako, eta gero, apuntatzen dan jentie itxaron-zerrendan geratuko da hurrengo ikastaroak antolatu arte. Orain arteko baloraziñue eitterako orduen, hasierako arazuek soluzionatzen doiezela baieztatatu dau Udalak. Gauza barrixe da eta taldien egin beharreku danez gero, koordinaziño ona lortzie kosta egiten dala aitortu dabe, baiña asko hobetu da hasieratik hona. Oin langile bat kontratatu dabe horretan laguntzeko, eta horrek be onurak ekarriko dabezela uste da. Mometuz ez da konpostik jaso, baina udazkenien zeozer lortzie espero da eta jendian artien banatu ahal izatie.

“JAR ZAITEZ MARTXAN” PLANA

“Jar zaitez martxan” plana martxan jarri dabe Durangaldeko herrixek, Mankomunitatian bittartez, BFAren laguntziakin. Eskualdeko gaztien aukera sozio-profesionalen kalitatie hobetzeko helburue dauke. Horretarako lan gaittasune eta enplegue lortzeko aukerak aztertuko die. Burutuko dien ekintzen artien honek dauz: Formaziozko kurtso espezifikuek eta enplegureko orientaziñue. Horretaz gain, enpresak sortzeko informaziñue zein gaztiei zuzenduteko laguntzak emongo die. 16 eta 29 urte bittarteko gaztiei zuzenduteko programa horrek 274.480 eurotako aurrekontue izengo dau. Interesa daukien gaztiekin informaziño gehixau Behargintzan (Durango), Ametx Erakunde Autonomoan (Amorebieta-Etxano) edo Izarra Fundazioan (Ermua) lortu ahal izango dabe.

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre



- Teak, kafeak eta ezta.
- Belgiako txokolatea.
- Eguneko tea eta gozokiak dastagarri.
- Teontziak, katiluak...

Oparitzeko neurria egindako otzarak!

Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

TAILER TRINKOAK EIBARREN

- MARRAZKI ANATOMIKOA
- AIRE ZABALEKO PINTURA
- UMEAK SORTZAILE
- YOGA & KREATIBITEA

622 053 933

Disko berria kaleratu du Ermuko Sffera taldeak

2007an sortu zen Sffera taldea, baina berritasunak ekarri dizkio 2014ak: bi taldekide berri (Eneko eta Unai) eta *Mar de Niebla* diskoa. Datozen hilabeteotan, berau zabaltzen eta zuzenekoak eskaintzen arituko dira.

Hamaika abestik osatzen dute *Mar de Niebla* diskoa. Metal progresibo estilokoak dira, nahiz eta kanta bakoitzak bere ezau-garri eta estilo propioa duen. Gizarte-kritikari, introspekzioari eta kontu pertsonalei buruz hitz egiten dute, besteak beste. “Diskoa ona da, eta esperantzak ditugu”, diote kideek.

300 kopia salgai ipini dituzte, herriko hainbat tabernatan eros daitezkeenak: Txalaparta, Scorpio, Arizmendi, Infreñu eta Molokon. Eta dis-

koaren diseinua, Igor Mugerza ermuarrak egin du. Horrez gain, Bandcamp plataforman webgunea sortu dute (sffera.bandcamp.com), eta bertan diskoa entzuteko aukera dago. Nahi dutenek diruekarpina ere egin dezakete, abestiak deskargatzeko, “baina oraindik, behintzat, inork ez du ezer ordaindu”, argitu dute.

Zornotzako musika-lokal batean grabatuta dago *Mar de Niebla*, eta ordu asko eman dituzte zeregin horretan. “Gitarrekin 3 aste inguru ibili gara; ahotsekin, be-

rriz, hilabete inguru... Denbora behar da, behin eta berriro errepikatu...”, dio taldeko buru den Aitor Losadak.

Izan ere, egun, lau kide dituzte Sfferak: Aitor Losada (gitarra eta ahotsa), Unai Sánchez (gitarra) eta Eneko Bergaretxe (bateria) ermuarrak, eta Barakaldon bizi den Alberto Rodríguez venezuelarra (baxua). Sortu zenetik, aldaketa ugari egon da taldean, eta Aitor Losada da hasieratik dagoen kide bakarra. Unai eta Eneko, aldiz, aurten hasi dira, Abhagoht taldean jotzen zebiltzala.

Zuzenekoak

2007an abiatu zen Sffera, Apocalyptic taldeko bi taldekide ohiek bultzatuta. Urte berean maketa grabatu zu-



ten, eta hiru urte geroago lehen diskoa kaleratu zuten: *Arrastrado por la corriente*. Esperientzia txarra izan zuten disko horrekin. Asturiasko Santo Grial Produccione-sekin kaleratu zuten, ordainduta eta taldekideen hitzetan, 1.000 kopia egitera derriortu zituzten. “Eurek banatuko zituzten gero, baina ez zen ia ezer saldu. Gainera, saldutako diskoengatik, huskeria ematen ziguten guri”, azpimarratzen dute.

Orain badakite musikak hobbia izan behar duela, baina astindua eman nahi diote taldeari. Hori dela-eta, kontzertuak lotzen hasiko dira irailetik aurrera. “Herriko zenbait tabernatan jotzeko asmoa dugu, baina badakigu horretarako mugitu beharko dugula. Entseguetan zentratu gara, baina zerbait gehiago nahi badugu, gure burua ezagutzera eman behar dugu, tematu, txapa eman”.

Facebook-en ere orria dute, eta azkenaldian Venezuela eta Argentinako jarraitzaileen berri izan dute.

Dorleta Vidal



Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

J. LUCAS

PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

Sutegi Txikia antzerki taldeak saria jaso du

Buero Antzerki Gaztea lehiaketako lehen saria lortu du Ermuko Sutegi Txikia taldeak. Euskadiko, Errio-xako, Kantabriako eta Nafarroako 44 taldek hartu dute parte sariketa honetan, eta ermuarrek lehen postua eskuratu dute eskolaz kanpoko atalean. Epaimahaiak gazte hauen interpretazio-gaitasuna baloratu du, “baina taldekideei zaila egiten zaie hori sinestea, ez dakit zergatik”, azpimarratzen du Juan Carlos Colina zuzendariak.

Maiatzaren 22an jaso zuten saria, Euskalduna Jauregian. “Ekitaldi xumea izan zen, baina hunkigarria —dio Juan Carlosek—. Antzerkien proiektzio-

ak ikusi, diploma jaso eta *luncha* izan genuen”.

Hamalau eta hamazortzi urte bitarteko hamazortzi lagunek osatzen dute taldea. Eta kasualitatez, Antonio Buero Vallejoren *Historia de una escalera* antzezlanarekin aurkeztu dira lehiaketara, 4 hilabetez lan gogorra egin eta gero. Colinaren arabera, zaila da entseatzeko orduak ateratzea, taldekide bakoitzak bere konpromisoak dituelako. “Gainera, ikasketak dira beraien lehentasuna”, dio.

Sariketaren XI. edizioa izan da aurtengoa, eta antolatzaileak dira: Coca Cola Fundazioa, Dramaturgiako Zentro Nazionala eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.



Gainera, sari horri esker, Espainiako txapelketan parte hartzeko aukera izan dute Sutegi Txikikoek, baina ez dira finalera heldu.

Datorren ikasturterako erronka berriak bilatu beharko dituzte. Izan ere, Colinaren ikasleek antzerkia

asko estimatzen dute. Beste pertsonarena egin ahal izateaz gain, antzerkiak gauza gehiago eskaintzen dizkiela aitortzen dute: “Egoera ezberdinei aurre egiten ikasi, beldurrak eta lotsak kendu eta harremanak sortu”, besteak beste.

Altxor gehiago aurkituko ditugu?

Lagun bat ekarriz gero, zuk erdia ordainduko duzu eta zure lagunak matrikula musu-truk izango du!

Lagun bat ➔ %50 hilabete batez
2 lagun ➔ %50 bi hilabetez
3 lagun ➔ %50 hiru hilabetez

Irailaren 12ra arte

Deskontuak ekainean egingo dira, lagun bat ekartzen baduzu. Maiatzaren eta ekainean bi ekartzen, Apirilean, maiatzean eta ekainean hiru ekartzen.

ZENBAT ETA GEHIAGO, HOBE!

Akerlei
idiomas

www.akerlei.com

twitter.com/Akerlei

facebook.com/Akerlei

Asier Mallabiabarrena, 4 urte Alemanian:

“Alemanian, hortzak erakutsi behar dira noizean behin”

Berlineko Friedrichshain auzoan bizi da Asier Mallabiabarrena ermuarra. Polimeroen Ingeniaritza eta Diseinu Grafikoa ikasi du, eta alemana hobetzeko asmoarekin joan zen bertara: lau hilabete aurreikusi, eta lau urte beteko ditu San Fermin egunean. Ekainean Ermuan egon da bisitan.

- Zenbat denbora daramazu etxetik kanpo?

Guztira, bost urte pasatxo. 2007an Polimeroen Ingeniaritzako proiektua egin nuen Munichen, urtebetez. Hona etorri, lanean hasi eta Diseinu Grafikoa ikasi nuen. Praktikak Vienan (Austrian) egin nituen, 3 hilabetez, eta handik Berlinera joan nintzen, gaur egunera arte.

- Lana zenuen bertan?

Ez. Berlin beti gustatu izan zait eta bertara joan nintzen, esku-hutsik. Baina gogorra da Alemanian zerotik hasia.

- Zein izan zen zure lehenengo lana?

Shishak erretzen ziren taberna batean hasi nintzen lanean, jabeak egiptoarrak ziren. Espainoetan eta alemanetan ere egon naiz, eta orain kafetegi batean nago, nahiko berezia dena: erdi begetarianoa da, aktoreak joaten dira noizbehinka... Ez da erraza nire ikasketekin zerikusia duen lana bilatzea. Azkenean, Berlinen turismoa da nagusi, ez dago industria askorik.

- Lan-baldintza onak dituzu?

Ez, *minijob* deritzona daukat. Astean 4 egun egiten dut lana (asteburuan, normale-

an), ez dut kotizatzen, soldata txikia dut, ezegonkorra da... Aldi baterako kontua.

- Baina 4 urte daramatzazu jada. Zerk lotzen zaitu bertara?

Harresia orain dela gutxi jausi zen, eta Berlin hiri dekadentea da, pobrea.... Hori jendearen izaeran ere igartzen da. Ez da hiri erraza. Aldi berean, oso hiri librea da, oso merkea, eskaintza kultural izugarria du, gazte mordo, artistak, kontzertuak... Xarma berezia du.

- Nolako izaera dute berlingarrek?

Hotzak, zakarrak eta astapotroak dira gauzak esaten. Segituan hasten dira zarataka eta zu ere horrelakoa bihurtzen zara. Hortzak erakutsi behar dituzu askotan, eta alemanak dagokien lekuan ipini. Hala ere, oso lagun jatorrak ditut.

- Hizkuntzarekin ondo moldatuko zara, ezta?

Bai, hizkuntza zaila da, baina ondo moldatzen naiz dagoeneko. C1 maila ateratzeko ikasten ari naiz.

- Hizkuntzaz gain, zer ikasi duzu?

Batzuek esan dezakete, maila profesionalean, denbo-



ra alferrik galtzen ari naizela. Baina maila pertsonalean gauza mordo ikasi dut, asko ernatu naiz; bakarrik zaude eta nahi eta nahi ez ikasi behar duzu aurrera egiten.

- Etorkina izateagatik baztertuta sentitu zara inoiz?

Bai, egunero. Hizkuntza menpera dezakezu eta oso integratuta egon, baina alemanek argi daukate etorkina zarela. Badaukate gehiagotasunezko zer bat, historian oinarritutako konplexua, agian. Herrialde guztietan da zaila atzerritarra izatea. Bestalde, horrek balio dizu non-

dik zatozen eta zure jaioterrian duzuna baloratzeko.

- Zer esaten dizute etxekoek?

Gurasoei, batez ere, gogorra egiten zaie ni kanpoan egotea. Arduratuta daude beti. Bueltatzeke asmoa dut, honek asko erakartzen bainau, eta faltan botatzen dut hemengo jendearen berotasuna.

- Hemengo gazteei Alemaniara joatea gomendatuko zenieke?

Bai, baina ezinbestekoa da aleman minimo bat, behintzat, eta ingelesa primeran hitz egitea.

Dorleta Vidal

BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK LAGUNDUKO DIZU

SPARA
rehabilitazio + sostenibilitate

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810



Uranga Autoak, kalitatea eta segurtasuna



Familia-empresa da Uranga Autoak. 2005ean sortu zen, eta Mallabiko Goitondo Industrialdean dago ordutik. Bosch Car Service eta Confort Auto tailerrak ditu, eraikin berean, eta horri esker goi mailako zerbitzua eskaintzen die bezeroei. Ordutegi zabala, etengabeko formazioa eta bertaratzeko erraztasunak ditu ezaugarri nagusi.

- Nortzuk dira Uranga Autoak tailerra- ren bezeroak?

Gure bezeroak autoak dira, eta mota guztietako bezeroak ditugu. Horiek ahalik eta hobekien mantentzen saiatzen gara. Gure helburua da bezeroak ahalik eta gusturen izatea.

- Zer nolako erraztasunak eskaintzen ditu Uranga Autoak?

Enpresatzako arreta espezializatua daukagu, badakigulako furgoneta edo autorik gabe ezin dutela lanik egin. Konponketa handiak direnean, enpresako autoa uzten diegu, eta hitzorduei dagokienez, konpromiso sendoarekin lan egiten dugu. Industrialdeko enpresetako langile askok ekartzen digute autoa, beraien lan orduetan konponketa egiteko. Lantokira gerturatzeko ditugu eta, etxera joateko orduan, beraien autoa prest izaten saiatzen gara.

Gainera, baserrietara edo inguruko etxeetara hurbiltzen ditugu autoen jabeak, eta autobus geltokia ere bi pausotara dugu.

Ordutegia:

8:00etatik 20:00etara.

**Aurrekontuak DOAN egiten
ditugu, konpromiso barik.**

- Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

Oinarritzko zerbitzuak emateaz gain, bezeroek eskatzen digutenari erantzuten diogu. Bestalde, aholku zerbitzua eskaintzen dugu, eta segurtasunaren esparruan zer komeniko litzaiekeen azaltzen diegu autoen jabeei. Inolako konpromisorik gabe. Adibidez: neguko gurpilak jarri edo ez, banaketa-uhala beharrezkoa denean ez aldatzeak ekar lezakeen matxura...



- Zer nolako kotxeekin egiten duzue lana?

Denetariko kotxeak izan dira gure tailerren: R12, 4L, karabanak, Ferrariak, kamionetak... Mekanikoez etengabeko formazioa jasotzen dute, autoak geroz eta ekipamendu handiagoekin etortzen zaizkigulako, eta ezinbestekotzat jotzen dugu formatzen jarraitzea.

Bestalde, autoentzako aldagaiak bilatzeko orduan erraztasun handia daukagu, Bosch Car Service garelako. Izan ere, auto gehienek marka horretako piezak izaten dituzte.

UDAKO PROMOZIOAK

- HANKOOK eta MICHELIN markekin, gasoila edo gasolina botatzeko txekak oparitzen ditugu (20, 30, 40 eta 60 eurokoak).

- Futbol Mundialeko porran parte hartu, doan, eta 13.000 euro edo 150 euroko txekoa irabaz dezakezu.

'GURE BALIOAK' SARIRAKO IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DA

Bosgarren edizioa beteko du aurten Gure Balioak sariak. Debegesa garapen agentziak sortu eta kudeatzen du, eta, sari horren bidez, Debabarreneko eskualdean gizarte-balioen arloan egindako lanagatik nabarmendutako pertsona edo erakundea saritu nahi du. Hautagaiak aurkezteko epea uztailaren 15era arte egongo da zabalik. gurebalioak.com webgunean eskura daiteke informazio gehiago.

APFEKO 2013-2014 DENBORALDIA BUKATU DA

Maiatzaren 31n Boavista eta Titanic taldeek Kopa jokatu zuten. Titanicek lortu zuen garaipena, 1-0 irabazita, eta partida horrekin batera bukatu zen futbol afizionatuaren denboraldia. Juventud SD izan zen hirugarrena. Bestalde, Murruga FT izan da Ligako txapelduna eta Titanic eta Boavistak lortu dituzte 2. eta 3. postuak, hurrenez hurren. 2014-2015 denboraldian bi talde berrik parte hartu ahal izango dute. www.apfe.es webgunean topatuko dute interesatuek informazioa.

Thomas Trifol hil da

Euskarak ekarri zuen Ermura Thomas Trifol 80ko hamar-kadaren hasiera inguruan. Euskara irakaslea ogibidez, Ermuko Udal Euskaltegian eskolak ematera urreratu zen gure herrira. Euskararen susperraldian inplikatur, ogibidea militantzia bilakatuz, Euskal Birusaren sortzaileetako bat izan zen. *Drogeteniturrri* argitaratu zen lehen aletik erredakzio taldeko kide izan zen. Gizarte justuago bat amets, berba erabiltzen zuen injustiziaren kontrako borrokan hainbat hedabidetan argitaratzen zituen artikuluetan. Londresen, bisitan zegoela, zendu da ekainaren 14an. Eztabaida franko eta barre ugari tartekatu dugu zurekin Euskal Biruseko proiektua konpartitu izan dugunok. Zure ekarpena izugarria izan da. Mila esker Thomas. Maite zaitugu. Agur.



Euskal Birusak jaietako txikurixa prestatzen dihardu

Santixau jaietarako hilabete geratzen bada ere, Euskal Birusa Elkarte lanean hasi da: uztailaren 18an zabalduko du aurten txosna, playback egunean, betiko lekuan. Elkarreak elkarlana abiatu du Antxitxiketan aisialdi taldearekin, eta horren laguntza izango du zenbait zereginetan (muntaietan, desmuntaietan, apainketan, tabernako txandetan...). "Euskararen alde lana egiten duten gazteekin aritzeak gu ere lanean jarraitzera animatzen gaitu", esan dute Euskal Biruseko arduradunek. Hala ere, bazkide eta herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izango da. Lagundu nahi dutenek, hainbat bide dituzte: prestaketa eta antolaketa lanetan (uztailaren 16an eta 17an); jai egunetan hiru orduko txandak eginez; sukaldetan edo garbiketetan lagunduz; eguerdietako pintxoetarako patata-tortilak eramanez eta, batez ere, koadrilako errondan txikurixa joanda. Informazioa gehiagorako, deitu 943179350 edo 688632874 telefonoetara, edo etorri Elexostera (Erdikokale zeharbidea 2, 1.).



Haur Hezkuntzako jaia ospatu du Eskolabarrrik

XIII. Haur Hezkuntzako jaia egin zuten Eskolabarrrikoek maiatzaren bukaeran. Irakasleek eta Guraso Elkarteak antolatutako jaialdi horretan 2, 3, 4 eta 5 urteko ikasleek hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera izan zuten: tailerrak, jolasak, dantzak eta bukatzeko askari gozo-gozoa.



SEHIGA
PROTECCION LABORAL
PLAN BABESERAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Montis DQ Mouth

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

ONAINDIA HARATEGIA

Etxean egindako
odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1 Tel. 943 10 85 44
48260 - ERMUA Mug. 678 64 85 41

Hainbat sari banatu dira XIV. Gastronomía Jardunaldietan



Gastronomia Jardunaldien baitan burutzen den Pintxo Lehiaketan, Frankfurt tabernak lortu zuen lehen saria. Sergio Moya sukaldariak sortutako mokaduak liluratu zuen epaimahaia: "Hondartzako txipiroia" (txipiroia, sagarra eta porrua). Duela hilabete eta erdi zabaldu zuen Moyak taberna, eta pintxoan astean 1.500 ale inguru saldu zituen. "Buelta asko eman nizkion pintxoari eta azkenean gozoa geratu zitzaidan. Platerak hutsik ekartzen zizkidaten bueltan

sukaldera, eta hori seinale ona da". Prestaketari dagokionez, "pintxoa zerotik egiten, 4 edo 5 ordu emango nituzke. Osagaiak prest izanda, aldiz, berehala egiten nuen muntaia eta zerbitzatzeko nituen", dio Moyak. Irabazteak sekulako poza eman zion; izan ere, 12 finalistetako bat zela jakin zuenean, pozez zorutzen zegoen jada. Orain, Bizkaiko txapelketara eramango du sukaldariak bere pintxo, moldaketa batzuk egin eta gero. Bestalde, Sagarra tabernak lortu du bigarren saria, hala nola publikoarena. Jesus González sukaldariari bururatu zitzaion "Amets berri bat" pintxo: 24 txahal-isats kilo prestatzen zituen egunero, 7 orduz sutan ipinita, eta gainera barazki erreak ipintzen zizkion. Bestalde, Japonetik ekarritako ogi birrinduan batutako gorringoa zerbitzatzeko plater berean. "Dena egiten genuen momentuan: isatsa izan ezik, ezin genuen ezer aldeztu aurretik prestatu. Hori dela eta, bezeroak itxaron egin behar zuten; ordaintan, zerbait berezia eskaintzen genuen", dio Gonzálezek. Hoberenen artean egotea espero zuten eta berak ere zenbait lehiaketataratu aurkeztuko du pintxo, osagai batzuk gehitu eta gero. Ekainaren 14an, berriz, II Paella Erraldoia egin zen plazan. Berrogeita hamar boluntario aritu ziren goiz osoan, tartean, Jesús Portugal eta Jesus González antolatzaileen lagunak eta Merkataritza eta Ostalaritza Elkartearen kideak. Osagai guztiak hainbat hornitzailek musu-truk emandakoak ziren, eta jasotako diru guztia, Ermuko Udaleko Gizarte Zerbitzuei emango zaie. Azkenik, bakailao lehiaketa egin zen egun berean. 25 bikote inguru aurkeztu ziren lehiaketara eta Lorena Iglesiasek eta Jesus Gonzálezek irabazi zuten lehen saria.



II GAZTE EGUNA EGINGO DA UZTAILAREN 12AN

II Gazte Eguna antolatu du Ermuko Gazte Asanbladak. Uztailaren 12an izango da, larunbata, plazan, eta "Hankaz gora jarri herria" leloa izango du. 11:00etan zabalduko dute txosna, eta umeentzako jolasak egingo dira; 14:00etan argazkia aterako dute, eta 14:30ean herri bazkariak gozatu. Bazkalostean, 17:00etan, gazte-olinpiadak egingo dira eta DJ Olalde egongo da plazan; Elektrotzaranga 19:00etan eta kontzertuak 22:00etatik aurrera. Bazkarirako tiketak 12 eurotan daude salgai, Txalaparta, Lurpe eta Infreñu tabernetan.

MARTXAN DA UDAKO POSTAL LEHIAKETA

Udaleko Euskara Sailak postal lehiaketa ipini du martxan aurtengoan. Parte hartu nahi dutenek postala bidali beharko dute 247 posta-kutxara, oportretan dauden bitartean. Umeentzako eta helduentzako kategoriak daude, eta sarien artean honako hauek daude: asteburu pasa landa-etxe batean, eta txokolaterapia saioa eta afaria bi lagunentzat.

arral97.com

arral

Telf.: 943 17 60 75

banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia
- Pazo Señorans
- Txakoli Akarregi
- Añada Real
- Vicente Gandía
- Milana
- Yllera taldea
- Oriol Rossell
- La Loca Juana
- Gomez Cruzado
- Astobiza txakolina
- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

es

egolek

electricitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 - ERMUA
943 17 00 61 - egolek@hotmail.com

Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 17 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Proba-Leku

Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

DANIEL FERREÑO

- *Gau eta egun bateria jotzen diharduzu...*

Batetik, perkusio klasikoa ikasten nabil kontserbatorioan, 5. urtean. Bestetik, Londreseko Rock School Unibertsitatea Bilbora dator, eta bateria modernoa ikasten dut bertan. Gainera, hilean bitan Madrilera noa klase partikularrak jasotzera.

- *Noiz hasi zinen beharrean?*

laz. Kobratutako aurreneko kontzertua eskaintzean.

- *Izan dituzun zuzeneko kontzertuak kontzertuak badaude?*

Alboka Musika Eskolako zuzenekoak aintzat hartu barik, 45.

- *Zenbat entsegu-ordu dauzate?*

Asko. Zazpi eta erdietan altxatu, gosalduta eta batera entseatzeko hasten naiz. Egunean 8 ordu eskaintzen dizkiot.

- *Aspertzeko tarterik baduzu?*

Ez. 8 ordu horiek memoria, teknika eta errepertorioen ikasketan banatuta ditut.

- *Nola promozionatzen duzue zure burua?*

Makala naiz web orrialde bat kudeatzeko, beraz aurrez aurreko kontaktua dut nahiago.

- *Zer da zure lanaz gehien estimatzen duzuna?*



Danel Ferreñok 21 urte ditu, eta Mallabian bizi da. Mari Jose eta Juan Luisen semezik zaharrena da bera, Aitor baino 5 urte nagusiagoa. Duela hamarkada bat hasi zen bateria jotzen. DBH bukatutakoan zaletasuna lan bilakatzeko asmoa agertu zuen.

Ni eta bateriaren artean sortzen den *feelinga*. Gutxi, bateria desmuntatzea.

- *Udaran ez duzue atseden hartuko...*

Maria Villalon abeslariarekin Segovian, Madril, Valentzian eta Rondan joko dut, besteak beste. Seiren, Skakeitan eta Stai Zittorekin ere kontzertuak lotuta ditut. Gainera, aldi berean grabatzen egongo naiz.

- *Zein musika estilok betetzen zaitu gehien?*

Denak. Zortea daukat jotzen dudana taldeetan estilo ezberdinak lantzen ditudalako. Baina, Stai Zitton islatzen naiz gehien, bertan gura dudana jotzen dudalako.

- *Amets bat?*

Berdina egiten jarraitzea.

- *Idolorik?*

Momentuan Jose Bruno "El niño", Madrilan dudana irakasle partikularra. Tipok

Leiva eta Fitorekin jo izan du, besteak beste.

- *Nola deskribatuko zenuke zure burua?*

Konstantea, lotsatia, zailantzia, heldua...

- *Zerk lasaitzen zaitu?*

Bidaiatzeak eta kirola egiteak.

- *Bidaia bat nora?*

Europar zehar kotxea hartuta.

- *Anekdotarik?*

Kontzertu batean bola igo zitzaidan, eta ezin nion bonboari eman. Hala ere, kanta bukatu genuen.

- *Kolore bat?*

Urdina, lasaitasuna ematen didalako.

- *Eguneko unerik onena?*

Goizeko lehen orduak, egun osoa aurretik dudanean.

- *Jateko...*

Oso sinplea naiz. Patata tortilla, makarroiak...

- *Erraz haserretzen zara?*

Bai, baina momentuan disimulatzen dut.

- *Nahi baina egin gabekoa...*

Batxilergoko titulazioa ez izatearen arantza dut.

- *Zer irakatsi dizu bizitzak?*

Konstantea izaten, eguna bera baloratzen...

Leire Elustondo

Pub Dakota



Probaleku, z/g Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Igeltserotza - Iturgintza



Errekalde

Esteban Goikoetxea
Errekalde baserria, 1
48260 ERMUA Bizkaia
Tel: 662 51 42 68
errekalde.gm@gmail.com

Bizkaiko Kopa irabazi dute Errotabarri Klubeko kadeteek

Denboraldi bikaina egin dute Errotabarri Eskubaloi Klubleko kadeteek. Euskadiko Txapelketan 3. postua lortu dute eta Espainiakoan finaletako atarian geratu dira. Azkenik, Bizkaiko Kopa jokatu eta irabazi dute. Datorren denboraldian, entrenatzaile berria eta umeentzako eskola izango du Klubak.

Errotabarriko kadeteek Matiko San Adrian taldearen kontra jokatu zuten Kopako finala, maiatzaren 31n, Barakaldoko Lasesarre kiroldegian. 30-28 irabazi zuten, eta emaitza horri esker, 2013-2014 denboraldiko lehen titulua eskuratu zuen 14 eta 16 urte bitarteko neska talde honek.

Mikel Martin entrenatzaileak dionez, titulua lortzea poztekoa da, baina jokalariek hauek ohituta daude beste maila batean jokatzeko. "Euskadin eta Espainian hortxe-hortxe aritu gara eta titulu hau, ez dut esango kontsolazio-saria izan denik, baina tira... Beno, denboraldiari brotxea ipini diogu".

Jokalariek ere bazuten Espainiako fase finalean jokatzeko esperantza

eta promesa egin zioten euren buruei: sailkatzen baziren, ile-motots bat arrosaz tindatuko zuten. Sailkatu ez, baina ilea tindatu zuten berdin-berdin; entrenatzaileak, berriz, kokospekoa morez tindatu zuen.

2014-2015

Beste denboraldi batzuk oparoagoak izan dira Klubean, Mikel Martinek aditzaera eman duenez, eta dagoeneko hurrengo prestatzen hasiak dira. Zenbait berrikun-



tza egongo dira Klubean. Seniorrek, esaterako, entrenatzaile berria izango dute: Bera Bera taldea utzi berri duen Imanol Alvarez ermua. Alvarezek, gainera, beste kategoriako taldeei laguntza eskainiko die.

Era berean, aurten sortu duen eskubaloi-eskola sendotuko du Klubak. Aurre-benjaminei (5 eta 7 urte bitarteko umeei, alegia) zuzendutako eskola abiatu zuten urtarrilean. Orditik, hilean behin elkartu dira, eta jokoen bitar-

tez, eskubaloiaren oinarrizko kontuak irakatsi dizkiete herriko 65 neska eta mutili. "Bospasei saio egin ditugu, baina irailetik aurrera, kontu hau serio hartuko dugu", dio Martinek.

Azkenik, ekainaren 15ean, Errotabarri Eguna egin zen lehen aldiz. Eskubaloia kale-ateratzeko helburua zuen Klubak, herriko bizilagunek taldearen berri izateko. Gaur egun 100 jokalariek inguru aritzen dira taldean.

Dorleta Vidal

Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

**CITROËN
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, 18 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

Komunitateak
San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**MALLA
ileapaindegia**

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

Adimen emozionala eta umeak


AEBeko Daniel Goleman psikologoak eman zuen ezagutzera adimen emozionala terminoa, aurkikuntza bat egin eta gero: Adimen emozionala da edozein lanbide-karreratako arrakastafaktorerik garrantzitsuena, adimen-kozientea edota gaitasun teknikoen gainetik. Baina, nolakoa da emozionalki adimentsua den pertsona bat?

Geure barneko emozioak identifikatzen jakin behar dugu (noiz gauden pozik, goibel edo haserre); inguruan ditugunon emozioak ere identifikatzen jakin behar dugu, lengoia eta keinuen bitartez haiengandik jasotzen duguna interpretatzen. Bestalde, gure emozioak era egokian adierazten jakin behar dugu, gainontzekoek interpretatu dezaten gu

sentitzen ari garena. Eta beste kontu garrantzitsu bat ere bada-go: igarri ahal izatea egunsentia ikusteak, izarrez betetako zerua begiratzeak edota artelan bat ikusteak sorrarazten dizkiguten emozioak.

Gu mugiarazteko erabili izan dira betidanik emozioak. Publizitateak eta politikak, esaterako, sentimenduei eta emozioei dei egiten diete, produktu edo zerbitzu bat eros dezagun edota alderdi politiko baten aldeko botoa eman dezagun. Gaur egun, gainera, neurozientziak esaten du emozioa beharrezkoa dela motibazioa galdu duten ikasleengan eragiteko: "Ez dago heziketarik, emozio barik".

Benetako arazoa da emozioak etiketatzea, bai oinarrizkoak (poza, tristura, sumindura, sorpresa)



*Juan Carlos
Martin*

bai bigarren mailakoak (antipatia, kezka, pesimismoa). Umeei galdetuz gero, ez dakite zehazten: "Oso emozionatuta nago", esaten dizute.


Azkenik, emozioak erregulatzen jakiteak bermatzen du egoera-emozional positiboetan eta negatiboetan murgiltzeko gaitasuna. Emozioek guregan duten eraginaz hausnartzea -negatiboa- leuntzea eta positiboak eustea -arrazoimena eta emozioaren arteko harremanaren isla dira. Mutikoen eta nesken jakin behar dute horiei guztiei nola egin aurre; ez du balio "ni horrelakoa naiz" esateak.

Adimen emozionala da edozein lanbide-karreratako arrakastafaktorerik garrantzitsuena



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33




URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Enrailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

ESKAINTZA

Txakur hezitzailea eskaintzen da (oinarrizko obediencia, talde heziketa eta portaera arazoak).
© 665714057 (Andoni).



Uztailaren 3an
Zuk bai dakizula urteak disimulatzen... Zorionak aitatzxo!! Luka, Samu eta amatxoren partez! Muuuua!



Uztailaren 12an
Gure marimatrakak 3 urte beteko ditu!! Zorionak Lur, etxeko guztien partez!! Maite zaitugu, pila-pila azeituna ta gindilla!!



Maiatzaren 28an
Zorionak Naroa zure 2. urtebetetzean etxekoen partez. Musu handi bat.



Uztailaren 18an
Zorionak Irati zure 10. urtebetetzean. Izugarrizko besarkada guztion partez. Maite zaitugu. Musutxoak.

Hurrengo zenbakirako azken eguna: UZTAILAREN 14a



Ostots Triatloi Kirol Klubekoak Iron Man Erdian

Bilboko Iron Man Erdia burutu zen maiatzaren azken asteburuan, eta 10 ermuarrek eta Ostots taldeko kidea den bilbotar batek parte hartu zuten. 600 parte-hartzaile egon ziren guztira eta 1,9km. igerian, 90km. bizikletan eta 21km. korriketan egin behar izan zituzten. Ermuarren artean, Sergio Lopek lortu zuen denborarik onena, 4:53:48. Bere atzetik, Iñaki Arrizabalaga eta Sergio Muñoz. Zorionak guztioi!



25 ermuar inguru Hiru Handiak mendi-lasterketan

Aurtengo Hiru Handiak proban Ermuko 25 kirolari inguruk parte hartu du. Gorbeia, Anboto eta Aizkorri artean dauden 100 kilometroak korritzeko helburuarekin batu ziren ekainaren 14an. Mutilen kategorian, Jon Ander Lerin izan zen lehen ermuarra, 14:12:18 (97.a sailkapen orokorrean, 94.a gizonetzkoetan); nesketan, bestalde, Isabel Santiago, 17:44:30 (405.a sailkapen orokorrean, 9.a emakumezkoetan). Zorionak mendizale hauei!

hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 **ENKARGYAK**
(Ermua) **943 030 299**

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

MALLABIA 1952

Argazki hau 1952 inguruan aterata dago Artetan, Paskoerdiko ospakizun egunien. Egun horretan San Antonioko ermitan zeuen armonixue erueten omen zan Artetara Egitik gora bidetxurretik. Bizkarrien hartu eta elkarri txanda pasatuz. Herizen zeuen armonixue haundixe eizan horrela eramateko. Bertan agertzen die: Mertxe Olalde, Leon Lizundia, Maria Astarloa, Angel Astarloa, Don Alejandro Zubia, Doroteo Milikua, Francisca Zubia, Paulina Milikua, Esteban Astarloa, Monika Zubia, Matilde Solozabal, Victoria Milikua, Vicenta Astarloa, Isidora Astarloa eta Cecilia Birtxinaga.



ERMUA 1984



Aitor Unanueren hitzak: “1984an futbitoko lehen txapelketa irabazi genuen, Anaitasuna Ikastolarekin. Argazkian, San Lorenzo futbito zelaian gaude eta, ikus daitekeen bezala, orduan ere krisia bazegoen, denentzako dominarik ez zegoen eta, kar-kar...”.

Bertan agertzen dira, ezkerretik hasita: Emiliano Ruiz (entrenatzailea), Iban Larrañaga, Pedro Arrarte, Jon Ruiz, Sergio Perosanz, Asier Aja, Ander Cid, Iker Manzisidor, Jon Argoitia, Aitor Unanue, Enrique Etxenagusia, Roberto Arrarte, Jon Barquiel eta Sergio Rubio. Beheko aldean, Gaizka Zamakola, Pedro Ramírez eta Garikoitz Azpiri.

MENDIOLA

Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA



Gero eta jende gehiagok baliatzen du etxe-trukearen sistema oporretara joateko. Oso sinplea da: norberaren etxea utzi, atzerriko beste familiaren baten etxebizitzaren truke. Formula hori 1950ean agertu zen Suitzan, eta gutxika zabaldu da nazioarteko hainbat herritarra.

**Badakizu zer den etxe-trukea? Egingo zenuke?
Zeintzuk dira bere alde onak eta txarrak?**



Bai, ezagutzen dut eta beharbada egingo nuke, baina ondo pentsatu eta gero. Zure etxera bueltatzen zarenean, ez dakizu nola topatuko duzun, eta horrek beldurra ematen dit. Bestalde, sistema horrek baditu alde onak ere, bidaiatzeko orduan diru asko aurreztu dezakezula, esaterako.

Esti Queija, 25 urte



Ez nuke egingo. Diru asko gastatu dut etxea atontzen eta ez diot ezezagun bati utzi nahi. Beste etxe bat daukat, alokatzen dudana, eta onartu behar dut ez didatela sekula ezer apurtu; gaztetan, ordea, Saloun izan nuen apartamentua multijabetzan, eta oso esperientzia txarra izan nuen.

Fernando Rey, 47 urte



Ez nuen ezagutzen, baina uste dut ez nukeela egingo. Mesfidantza daukat. Mundu honetan jende ona ere badago, baina... Gainera, aitortu beharra daukat ez nintzatekeela eroso egongo beste inoren etxean. Familiarenera noa familiakoa delako eta kito.


Marisol Fernández, 38 urte



Zerbait entzun dut, baina ez daukat horren beharrik. Oporretan joateko etxea badut, eta atzerrira joan izan naizenean, hoteletara joan naiz. Ez da ideia txarra, baina ez nuke egingo, ez baitakizu etxea nola aurkituko duzun bueltan. Alde ona? Ondo kokatuta dagoen etxebizitza topa dezakezula.

Manuel Fernández, 46 urte

Tasio eta Sabino



Esan nizun, galdetu behar zenuela argazkia zein urtetakoa zen!

Uztailak 14, astelehena

- 18:00, Lobianon, Ismaila Coly artistaren margo erakusketa. Hilaren 20ra arte.
- 19:00, plazan, artaburu eta pepino lehiaketak.
- 22:30, Valdespinan, kontzertua, Versionarios taldea.

Uztailak 15, asteartea

- 19:00, plazan, sokatira eta pringe proba.
- 22:30, Valdespinan, Erdaldun berrien kluba kale-ikuskizuna, Olatz Pagaldairan eskutik.

Uztailak 16, asteazkena

- 19:00, plazan, triatloia eta jatorrizko bekak probak.
- 22:30, Bertso jaialdia Valdespinan: Nerea Ibarzabal, Malen Amenabar, Beñat Ugartetxea, Manu Goiogana, Josu Oiartzabal eta Eneko Lazkoz bertsolariak.

Uztailak 17, osteguna

- 18:00, kiroldegian, areto-futbol txapelketa.
- 19:00, plazan, sokatiraren finala eta kuboak.
- 22:30, Valdespinan, Mursego musikariaren kontzertua.

Uztailak 18, ostirala

- 18:00, Kiroldegian, areto-futbol txapelketa.
- 18:00, plazako pilotalekuan, paleta txapelketaren finalak.
- 22:30, plazan, play-back lehiaketa.

Uztailak 19, larunbata

- 9:00, Kiroldegian, areto-futbol txapelketa.
- 10:00, plazatik irten da, Urko 69etan ezetz! VI. igoera kontrolatua.
- 10:00, Gipuzkoako etorbideko 10 zenbaitik, Ermua Hiriko III Slotrally-a.
- 10:00, plazako pilotalekuan, arku-tiro proba. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du.
- 11:00, Lobianon, errol eta estrategien jokoak.
- 11:00, plazan, Iñigo Argandoña Maisu Internazionalak eskainiko du aldibereko xake partidaren erakusketa. Nahi duen guztiari zabalik.
- 16:30, plazan, XII. mus txapelketa herrikoia.
- 17:00, Goitondo industrialdean, umeentzako 2014ko Santixauak txirindularitza proba.

- 19:00, plazan, dantza emanaldia Txindurri taldearen eskutik.
- 23:30, San Pelaio plazan, Seguridad Social taldearen kontzertua.

Uztailak 20, igandea

- 8:00, Mallabiko Pedro Deunaren zelaian, txakuraren erakustaldi-lehiaketa.
- 9:00, Kiroldegian, areto-futbol txapelketa.
- 9:30, mendi-bizikletako XIX herri martxa plazatik.
- 22:00, San Martin plazan, blood-bowl.
- 10:00, plazan, herri-arteko xake partida azkarren XIX lehiaketa.
- 11:00, San Pelaio plazan, irratiz kontrolaturiko kotxeen 'Ermua Hiria' XVII. txapelketa.
- 19:00, plazan, musika eta dantza jaialdia, Ipar Osetiko Gorets eta Costa Ricako Tierra y Cosecha taldeak.
- 17:00, Kiroldegian, futbo-areto finala

Uztailak 21, astelehena

- 17:00, Lobianon, "Festa dezagun gaurdanik geroa" dokumentalaren emanaldia.
- 18:00, plazan, tratu onen aldeko photocalla.

- 22:30, Valdespinan, Betty Soul-en kontzertua.

Uztailak 22, asteartea.

- 21:00, plazan, herri ogitartedaka.
- 22:30, plazan, txarangen abesti-lehiaketa. Irulitxa txarangak joko du.

Uztailak 23 asteazkena (umeen eguna)

- 10:30, plazan, buruhandiak.
- 11:00/13:00 eta 16:00/19:00, plazan, umeentzako parkea eta tailerrak.
- 17:00, plazan, umeentzako txokolate-jana.
- 19:00, plazan, Kanpanolue... 11 salto gehiagor! umeentzako musika-ikuskizuna.

BESTELAKOAK

- Hilaren 3etik 6ra: Sallabenteko jaiak.
- Hilak 5: Ekitaldi gastronomikoa, 11:00etatik aurrera, plazan.
- Hilak 12: Gazte eguna, 11:00etatik aurrera, plazan.

Patxi López



TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINITZA BEREZIA
OSTRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

Infreñu
Taberna



Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA



MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Tikitritxa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Irale
 hortz klinika
Leire Irazu Garitaonandia

- Ortodontzia
- Aho zirujia
- Pedriodontzia
- Implanteak
- Odontologia orokorra

Zeharkale 8, behea 943 17 71 34
 www.irale.com

Yoga eskola
 Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak
 Erlaxazioa eta meditazioa
 Osteopatia eta bertebrologia
 Anginak sendatzeko masajea

Sanatana Dharma

San Roke 24, behea
 943 74 85 93
 685 722131 (Idoia)

san pelayo
 clínica dental hortz klinika

Inplanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hortz -zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber

Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

NATURA

Cristina García Pérez

- Elikagai biologikoak
- Terapia naturalak
- Naturopatarekin kontsultak
- Masajeak
- Dietistarekin kontsultak
- Kosmetika biologikoa

Belar-denda eta dietetika

Zeharkale 12 behea esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera

JAR ZAITEZ MARTXAN

16 ETA 29 URTE ARTEKO
GAZTEENTZAKO PROGRAMA

ENPLEGURAKO ORIENTAZIO
ETA LAN GAITASUNEN ARLOKO
PRESTAKUNTZA

- Gaitasun profesionalak garatzea: motibazioa, komunikazioa, lidergoa, erabakiak hartzea, gatazkak konpontzea, taldeko lana, giza trebetasunak, etab.
- Enpleguaren bilaketa aktiboa eta bilaketa tresnak.
- Langileak hautatzeko tresnak.

ENPRESAK SORTZEA

AHOLKULARITZA

- Banakako tutoretza eta laguntza negozio ideia edo proiektuetan.
- Aholkularitza merkataritza, finantza, zerga eta lan arloetan.
- Doako ekintzailatza gelak: lanerako eta bilerak egiteko espazioak Internet konexioarekin.

LAGUNTZAK

- Gizarte segurantzako kotizazioak finantzatzeko zuzeneko laguntzak.

IZEN-EMATEA ETA INFORMAZIOA

Behargintza (Durangaldea)

T. 946 232 522 / behargintza.mdurango@bizkaia.org

Ametx Erakunde Autonomoa (Amorebieta-Etxano)

T. 946 300 650 / gazteria@ametx.net

Fundación Izarra Fundazioa (Ermua)

T. 943 177 159 / proyectos@fundacionizarra.eu

INFORMAZIO GEHIAGO

www.fundacionizarra.eu



Bizkaiko Foru
Aldundia
Euzko Foru
Paral de Bizkaia



Durangoko Merinaldearen
Amariomunirgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango